



RADIOLOGIA Y MEDICINA FISICA CRITERIOS DE EVALUACION

La asignatura consta de tres apartados principales, que se corresponden con las tres especialidades que componen los contenidos de la asignatura:

- Radiología
- Radioterapia
- Medicina Nuclear

Con el fin de asegurar un conocimiento mínimo de cada uno de los apartados, para superar la asignatura es necesario que la media geométrica de las calificaciones obtenidas en cada apartado sea igual o superior a 5,0.

Requisitos discentes

1. Docencia teórica: la asistencia a clases y seminarios es obligatoria, requiriéndose un mínimo del 80% para superar la asignatura.
2. Docencia práctica: la realización de las prácticas es obligatoria y requisito imprescindible para superar la asignatura. (sólo por causa justificada y proporcional puede aceptarse un máximo de un 20% d inasistencia).
Sólo se requiere realizarlas una vez (si no se supera la asignatura no es necesario repetir las prácticas)

Examen final

El examen final incluirá todos los contenidos del temario oficial de la asignatura.



RADIOLOGIA Y MEDICINA FISICA UNIDAD DOCENTE DE VITORIA

MODALIDAD DE EXAMEN

El **examen teórico** constará de seis preguntas de desarrollo libre sobre los contenidos a examinar. Cada pregunta se puntuará sobre 10, siendo la calificación la media aritmética de las puntuaciones obtenidas.

Se valorará especialmente la comprensión de los conocimientos básicos de la materia y la capacidad de aplicar los conocimientos y argumentarlos.

El **examen práctico** consistirá en la resolución de preguntas relativas al diagnóstico por imagen y situaciones clínicas del ámbito del radiodiagnóstico, medicina nuclear y de oncología radioterápica.

Se valorará especialmente:

- 1. Reconocimiento de técnicas e imágenes radiológicas, anatomía radiológica.*
- 2. Interpretación de la imagen y de datos relevantes relacionados*
- 3. Reconocimiento de normalidad o patología*
- 4. Resolución de casos clínicos. Emitir juicios de posible diagnóstico clínico y diagnóstico diferencial y actitud terapéutica.*

Calificación de la asignatura. La puntuación final (sobre 10) se obtendrá con la fórmula siguiente:

$$(\text{Examen teórico} * 0,7) + (\text{Examen práctico} * 0,3)$$



ERRADIOLOGIA ETA MEDIKUNTZA FISIKOA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Irakasgaiak hiru atal nagusi ditu, irakasgaiaren edukiak osatzen dituzten hiru espezialitateekin bat datozenak:

- Erradiologia
- Erradioterapia
- Medikuntza Nuklearra

Atal bakoitzean gutxieneko ezagutza ziurtatze aldera, irakasgaia gainditzeko beharrezkoa da atal guztietan lortutako kalifikazioen batezbesteko geometrikoa 5,0 edo handiagoa izatea.

Ikasketa metodoa.

1. Irakaskuntza teorikoa: eskola eta mintegietara joatea nahitaezkoa da, eta gutxienez % 80ko bertaratzea izan beharko da irakasgaia gainditzeko.
2. Irakaskuntza praktikoa: praktikak egitea nahitaezkoa da, irakasgaia gainditzeko ezinbestekoa (arrazoi justifikatuak direla eta, onartu ahal izango da saioen % 20ra ez joatea, gehien-gehienez).
Praktikaldia behin bakarrik egin behar da (irakasgaia gainditzen ez bada, ez da beharrezkoa praktikak errepikatzea).

Azken azterketa.

Amaierako azterketan ikasgaiaren gai zerrenda ofizialeko eduki guztiak sartuko dira.



ERRADIOLOGIA ETA MEDIKUNTZA FISIKOA GASTEIZKO IRAKASGUNEA

AZTERKETA MODALITATEA

Azterketa teorikoak garapen libreko sei galdera izango ditu, aztertu beharreko edukiei buruzkoak. Galdera bakoitzaren gehieneko puntuazioa hamar izango da, eta azken kalifikazioa zehazteko, lortutako puntuazioen batezbesteko aritmetikoa kalkulatu da.

Bereziki baloratuko da irakasgaiaren oinarrizko ezagutzen ulermena eta ezagutzak aplikatzeko nahiz argudiatzeko gaitasuna.

Azterketa praktikoan, irudi bidezko diagnostikoari buruzko galderei erantzun beharko zaie, eta erradiodiagnostikoaren, medikuntza nuklearraren eta onkologia erradioterapikoaren eremuetako egoera klinikoak ebatzi beharko dira.

Bereziki baloratuko dira honako hauek:

- 1. Teknika eta irudi erradiologikoak eta anatomia erradiologikoa ezagutzea.*
- 2. Irudia eta lortutako datu garrantzitsuak interpretatzen jakitea.*
- 3. Normaltasuna edo patologia identifikatzea.*
- 4. Kasu klinikoak ebatzea. Balizko diagnostiko klinikoari, diagnostiko diferentzialari eta jarrera terapeutikoari buruzko iritziak ematea.*

Irakasgaiaren kalifikazioa. Azken puntuazioa (hamarretik) formula honen bidez lortuko da:

$$(\text{azterketa teorikoa} * 0,7) + (\text{azterketa praktikoa} * 0,3)$$